

ágem

asesores de gerentes emprendedores

Sozietateko akziodun bakarrari/ Al Accionista único

“AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.”


**2017 URTEKO AUDITORE INDEPENDENTE BATEK
EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-
TXOSTENA**

**INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES
EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE
EJERCICIO 2017**

Protokolo Zenbakia/Nº de Protocolo: 14/18

Donostía, 2018ko apirilaren 4a

San Sebastián, 4 de abril de 2018



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

AZKOITIA LANTZEN, S.A.U. sozietatearen akziodun bakarrari, administrazio-kontseiluak aginduta

Al accionista único de **AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.** por encargo del Consejo de Administración

Salbuespen Iritzia

“AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.”ren (Sozietatea) urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2017ko abenduaren 31ko ETEen balantzuek, eta aimatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion ETEen galdu-irabazi kontuak, ETEen ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak eta ETEen memoriak osatzen dituzte.

Opinión con salvedades

Hemos auditado las cuentas anuales de “AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.”, (la Sociedad), que comprenden el balance de PYMES a 31 de diciembre de 2017, la cuenta de pérdidas y ganancias de PYMES, el estado de cambios en el patrimonio neto de PYMES y la memoria de PYMES correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, “Salbuespen-iritziaren Oinarria” paragrafoan deskribatutako egitatearen eragin posibleak salbu, 2017ko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi Fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

En nuestra opinión, excepto por los posibles efectos de la cuestión descrita en la sección *Fundamento de la opinión con salvedades* de nuestro informe, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad a 31 de diciembre de 2017, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Salbuespen iritziaren oinarria

2017ko abenduaren 31an ez dago erregistratuta Azkoitiko Udalak “AZKOITIA LANTZEN S.A.U.”-ri egindako luraren erabileraren lagapena, hau 2019ko urtarrilaren 1ean amaitzen delarik. Izan ere, horien gainean, “AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.” sozietateak Elkargune eraikina eta estali gabeko igerilekuak eraiki ditu, hurrenez hurren. Horiek balantzearen aktiboan jasotzen dira, guztira 1.551.436,27€-ko balio garbiaz. Azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako ETE-en Kontabilitate Plan Orokorreko erregistro eta balorazio arauak kontraprestaziorik gabeko ondasunak erabiltzeko eskubideen lagapenak, oro har, ibilgetu ukiezintzat erregistratu behar direla dagokien arazoizko balioaren arabera ezartzen dute, kontrapartida gisa ondare garbiaren “Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak” epigrafea erabiltza; eta, oinarri sistematiko eta arazoizko

Fundamento de la opinión con salvedades

No se encuentra registrada al 31 de diciembre de 2017 la cesión de uso de terrenos efectuada por el Ayuntamiento de Azkoitia a favor de “AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.” que vence el 1 de enero de 2019. La Sociedad ha llevado a cabo sobre dichos terrenos las obras de construcción del edificio Elkargune y las piscinas descubiertas respectivamente y figuran en el activo del balance por un valor neto total de 1.551.436,27€. Las normas de registro y valoración del Plan General de Contabilidad de Pymes aprobado por Real Decreto 1515/2007, de 16 de noviembre, establecen que las cesiones de derechos de uso de bienes sin contraprestación, deben registrarse con carácter general como un inmovilizado intangible por su valor razonable utilizando como contrapartida el epígrafe “Subvenciones, donaciones y legados” del patrimonio neto, e ir registrando en la cuenta de



Member of Russell Bedford International

batean, ibilgetu horren amortizazioak eta dagozkion diru-laguntzen emaitzetarako egozpenak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen joan. Ez dugu informaziorik, aipatutako elementu horiek lagatako egunean izan zezaketen arrazoizko balioari buruz. Hori horrela, ezin izan dugu zehaztu erabiltzeko eskubide horrek kontabilitatean zein zenbatekotan egon beharko lukeen erregistratua, ez ibilgetu ukiezinean, eta ondorioz, ezta 2017ko abenduaren 31ko balantzeko ondare garbian eta pasiboan ere. 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion urteko kontuen gure ikuskaritza iritziak honen inguruan salbuespen bat ere bazuen.

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontuauditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzaileren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, salbuespen iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

pérdidas y ganancias del ejercicio las amortizaciones del citado inmovilizado e imputaciones a resultados de subvenciones correspondientes sobre una base sistemática y racional. No se dispone de información relativa al valor razonable a la fecha de la cesión de los citados elementos. En consecuencia, no hemos podido determinar el importe por el que debería figurar registrado contablemente el mencionado derecho de uso en el inmovilizado intangible y como contrapartida en el patrimonio neto y pasivo del balance al 31 de diciembre de 2017. Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales correspondientes al ejercicio terminado el 31 de diciembre de 2016 también contenía una salvedad a este respecto.

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión con salvedades.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.



Salbuespenekin iritziaren oinarria atalean deskribatutakoagatik izan ezik, auditoretzatxostenean jakinarazi beharko liritekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna.

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz, memoriaren 2 oharrean adierazten dena. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen empresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna

Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.

Excepto por la cuestión descrita en la sección "Fundamentos de la opinión con salvedades" hemos determinado que no existen otros riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deban comunicar en nuestro informe.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la Sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.



- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barnekontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzialdatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.
- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere. Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen auditoretzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Nos comunicamos con los administradores de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría. Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.



Arrisku hauek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostia, 2018ko apirilaren 4a / San Sebastián a 4 de abril de 2018.



AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, S.L.
(ROAC-S2107)

Kontu-Ikuskari Bazkidea/Socio auditor

Eider Ibarzabal Barrenechea
(ROAC 21664)



AGEM CONSULTORES Y
AUDITORES, S.L.

Año 2018 Nº 03/18/00154
COPIA

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.			
PYMES-EN BALANTZE-EGOERA 2017 EKITALDIKO ITXIERAN			
(Eurotan)			
AKTIBOA	Memoriaren oharra	2017	2016
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		1.551.436,27	3.103.019,96
II. Ibilgetu materiala	4.2, 5	0,00	147,45
III. Ondasun higiezinetakako inbertsioak	4.3, 5	1.551.436,27	3.102.872,51
B) AKTIBO KORRONTEA		14.628.739,41	14.831.684,27
II. Izakinak	4.6, 6	12.643.028,10	12.924.793,23
III. Merkat.zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	4.7, 7	538.882,48	894.048,62
1. Salmenta eta zerbitzu-prestazioagatiko bezeroak		402.026,02	802.891,18
3. Bestelako zordunak		136.856,46	91.157,44
V. Epe laburrerako inbertsio finantzarloak	4.7,7	925.000,00	0,00
VI. Epe laburrerako periodokateak		994,18	994,18
VII. Efektiboa eta beste aktibo likido baliokideak		520.834,65	1.011.848,24
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		16.180.175,68	17.934.704,23

ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA	Memoriaren oharra	2017	2016
A) ONDASUN GARBIA		1.300.412,90	2.478.357,86
A-1) Enpresaren fondoak	9	385.136,31	647.804,72
I. Kapitala		60.000,00	60.000,00
1. Kapital eskrituratua		60.000,00	60.000,00
III. Erreserbak		587.804,72	6.000,00
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		0,00	-2.531.532,71
VI. Bazkideen bestelako ekarpenak		0,00	2.959.294,81
VII. Ekitaldiko emaitza.	3	-262.668,41	154.042,62
A-2) Jasotako subentzioak, dohaintzak eta legatuak	4.14, 12	915.276,59	1.830.553,14
B) PASIBO EZ KORRONTEA		374.034,56	835.136,55
I. Epe luzeko hornidurak	4.12, 13	85.000,00	257.067,18
IV. Zerga geroratuen pasiboak	4.10, 10	289.034,56	578.069,37
C) PASIBO KORRONTEA		14.505.728,12	14.621.209,82
II. Epe laburrerako hornidurak	4.12	0,00	1.074,92
III. Epe laburrerako zorrak	4.8, 8	379,50	379,50
V. Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontuak	4.8, 8	14.505.348,62	14.619.755,40
1. Hornitzaileak		20.445,03	88.393,81
2. Bestelako hartzekodunak		14.484.903,59	14.531.361,59
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)		16.180.175,58	17.934.704,23

Azkoitian, 2018ko martxoaren 23an

Administrazio Kontseilua:

Izpta: Javier Zubizarreta Zubizarreta Jn.
Lehendakaria

Izpta.: Ana M^a Azkoitia Urteaga And.
Lehendakariordea

Izpta: Maitane Unanue Azkue.
Kontseilaria

Izpta: Miguel Angel Bastida Aranbarri Jn.
And.
Kontseilaria

Izpta: Gaizka Larrañaga Ucin Jn.
Kontseilaria

Izpta: Janire Igoa Merino
Kontseilaria



AZKOITIA LANTZEN, S.A.U.
PYMES-EN GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2017KO ABENDUAREN 31AN ITXITAKO
EKITALDIARI DAGOKIONA (Eurotan)

	Memoriaren oharrak	(Zor)	(Zor)
		Hartzeakoak	Hartzeakoak
		2017	2016
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	4.11	0,00	1.900.000,00
4. Hornikuntzak	4.11, 11	-262.373,48	-1.588.305,22
5. Ustiapeneko bestalako sarrerak	4.5,4.11,5,7	304.725,02	258.829,71
6. Pertsonal-gastuak	4.11, 11	-59.930,74	-59.037,80
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	4.11, 11	-74.141,47	-105.782,85
8. Ibilgetuaren amortizazioa	4.1,4.2,4.3,5	-1.551.583,69	-1.582.375,45
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpen	4.14, 12	1.204.311,26	1.204.311,26
13. Bestelako emaitzak	4.11, 11	176.277,42	96.402,97
A) USTIAPENKO EMAITZA (1+4+5+6+7+8+9+13)		-262.715,68	154.042,62
14. Sarrera finantzarioak		47,27	0,00
B) EMAITZA FINANTZARIOA (14)		47,27	0,00
C) ZERGEN AURRETIKO EMAITZA (A)		-262.868,41	154.042,62
D) EKITALDIKO EMAITZA (C)		-262.668,41	154.042,62

Azkoitian, 2018ko martxoaren 23an

Administrazio Kontsellua:

Izpta: Javier Zubizarreta Zubizarreta Jn.
Lehendakaria

Izpta.: Ana M^a Azkoitia Urteaga And.
Lehendakariordea

Izpta: Maitane Unanue Azkue.
Kontseilaria

Izpta: Miguel Angel Bastida Aranbarri Jn.
Kontseilaria

Izpta: Gaizka Larrañaga Ucin Jn.
Kontseilaria

Izpta: Janire Igoa Merino And.
Kontseilaria



2017KO ABENDUAREN 31N AMAIUTAKO URTEKO EKITALDIKO ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA							
AZKOITIA LANTZEN, S.A.U							
(Eurotan)							
	KAPITAL	ERRESERBAK	AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZAK	BAZKIDEEN BESTELAKO EKARPENAK	EKITALDIKO EMAITZA	JASOTAKO SUBENTZIOAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	GUZTIRA
	ESKRITURATUA						
A) AMAIERAKO SALDOA, 2015 EKITALDIA	3.011.070,63	939.809,49	-7.181.091,80	0,00	764.678,97	2.745.529,69	280.296,98
B) 2016 EKITALDIKO HASIERAKO LERROKATU SALDOA	3.011.070,63	939.809,49	-7.181.091,80	0,00	764.678,97	2.745.529,69	280.296,98
I. Ekitaldiko sarreraren eta gastuen saldoa					154.042,62		154.042,62
II. Bazkide edo jabeekin egin diren eragiketak							
2. (-) kapital murrizketak	-2.951.070,63	-939.809,49	3.884.880,12				0,00
7. Bazkide edo jabeekin egin diren beste eragiketak				2.959.294,81			2.959.294,81
II. Ondasun garbiko sarrera eta gastu alortuak						-915.276,55	-915.276,55
IV. Ondasun garbiko beste operazio batzuk			764.678,97	0,00	-764.678,97		0,00
C) AMAIERAKO SALDOA, 2016 EKITALDIA	60.000,00	6.900,00	-2.531.532,71	2.959.294,81	154.042,62	1.830.553,14	2.478.357,86
D) 2017 EKITALDIKO HASIERAKO LERROKATU SALDOA	60.000,00	6.900,00	-2.531.532,71	2.959.294,81	154.042,62	1.830.553,14	2.478.357,86
I. Ekitaldiko sarreraren eta gastuen saldoa					-262.668,41		-262.668,41
II. Ondasun garbiko sarrera eta gastu alortuak						-915.276,55	-915.276,55
IV. Ondasun garbiko beste operazio batzuk		581.804,72	2.531.532,71	2.959.294,81	-154.042,62		0,00
E) AMAIERAKO SALDOA, 2017 EKITALDIA	60.000,00	587.804,72	0,00	0,00	-262.668,41	915.276,59	1.300.412,90

Azkoitian, 2018ko martxoaren 23an

Administrazio Kontseilua:

Izpta: Javier Zubizarreta Zubizarreta Jn.
Lehendakaria

Izpta.: Ana M^o Azkoitia Urteaga And.
Lehendakariordea

Izpta: Maitane Unanue Azkue And.
Kontseilaria

Izpta: Miguel Angel Bastida Aranbarri Jn.
Kontseilaria

Izpta: Gaizka Larrafiaga Ucin Jn.
Kontseilaria

Izpta: Javier Igoa Merino And.
Kontseilaria



AZKOITIA LANTZEN, S.A.

ETEen KPOaren memoria, 2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldikoa

1. OHARRA .- ENPRESAREN JARDUERA

AZKOITIA-LANTZEN, S.A. sozietate gisa eratu zen 1987ko azaroaren 23an, denbora mugagabez.

Haren helburu soziala da lurzoruak sustatzea, antolatzea, urbanizatzea, erostea eta saltzea, horietan etxebizitza-erakinek, industrialak eta mota guztietako zerbitzuetarako eraikinak jartzeko, bai eta erabilera publikoak edo pribatukoak izan daitezkeen etxebizitzak, eraikin industrialak eta komunitate-zerbitzuak eta -hornikuntzak sustatzea, pentsatzea, eraikitzea, erostea, saltzea edo beste modu batzuetan ematea eta kudeatzea ere, Azkoitiaren eta bertako biztanleen mesedetan. 1987ko azaroan hasi zuen sozietateak bere jarduera.

AZKOITIA-LANTZEN, S.A.ren jarduera nagusia da hiriko lurzoria sustatzea eta mota guztietako eraikinak eraikitzea. Gipuzkoan lan egiten du sozietateak, Azkoitia udalerrian hain zuzen ere, eta lantoki bakarraren bidez.

Azkoitiko Udaletxea da sozietatearen helbide soziala.

Kapital Sozietateen Legea aplikatzen zaio; horren testu bategina onartu zen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez. Aplikagarri zaizkio, baita ere, Merkataritzako Kodea eta xedapen osagarriak.

2. OHARRA .- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Egoera Zehatza

2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko urteko kontuak, testu honekin batera aurkeztu direnak, sozietatearen kontabilitate-erregistrotik atera dira, eta 1515/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, Enpresa txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorra eta kontabilitate-arloko derrigorrezko lege-xedapenak onartzen dituenak, aurkezten dira onartutako Kontabilitate Plan Orokorren arabera. Horrela, zintzoki isiatu dira, alderdi garrantzitsu guztiei dagokienez, ondarearen egoera eta finantza-egoera, bai eta eragiketen emaitzak eta ondare garbiaren aldaketak ere.

Sozietateko Akziodunen Batzar Orokorrak 2016ko ekitaldiko urteko kontuak onartu zituen 2017ko ekainaren 28an.

2.2. Kontabilitate-printzipioak

Memoria honen 4. oharrean laburbildu dira urteko kontu horiek egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak. Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten derrigorrezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egitean, ez aplikatuz kontabilitate-printzipioak derrigorrezkoak ez direnak.



2.3. Informazioaren alderaketa

Merkataritza-legeriari jarrailuz, egoerari buruzko balantzearen partida bakoitzarekin, galera eta irabazien kontuarekin eta ondare garbian izandako aidaketen egoerarekin batera, itxi den ekitaldiari dagozkion kopuruez gain, aurreko ekitaldiakoak ere aurkeztu dituzte Elkarteko Administrazioaileak.

2017ko ekitaldiko urteko kontuak aurreko ekitaldikoekin aldera daitezke.

2.4. Ziurgabetasuna balioesteko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Sozietateko administrazioaileak dira urteko kontu hauetan jasotako informazioaren erantzule.

2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuetan, horietan aipatzen diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk balioesteko, sozietateko administrazioaileek egindako zenbatespen batzuk erabili dira zenbaitetan. Funtsean, honako hauei egiten diete erreferentzia zenbatespen horiek:

- aktibo jakin batzuk narriatzeagatik sortutako galerak (4.1, 4.2, 4.3, 4.6 eta 4.7 oharra)
- aktibo materialen, ukiezinen eta ondasun higiezinak inbertsioen balio-bizitza (4.1, 4.2 eta 4.3 oharra)
- arrisku eta gastuetarako hornidurak (4.12 oharra)

Zenbatespenak egiteko, kontuan hartu den formulazio-egunean aztertutako gertaeren inguruan eskuragarri dauden artetik hoberena; horregatik, etorkizunean izan daitezkeen gertaerak direla eta, baliteke datozen ekitaldietan aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz). Hori egin behar izanez gero, modu prospektiboan egingo litzateke, eta zenbatespen-aldaketak dagozkien etorkizuneko galeren eta irabazien kontuan izango litzatekeen eraginak aitortuko lirateke.

Era honetan, egindako estimazioen artean, izakinen narriadurari buruzkoak zein arriskuei eta gastuei erantzuteko hornidurak dira aipagarriak. Ikus 6 eta 13 oharra, hurrenez hurren.

Azken urteetan, Sozietatearen bideragarritasuna bermatzeko neurri desberdinak gauzatu dira:

- Akziodun bakarraren (Azkoitiko Udala) laguntza, 2016ko ekitaldian 10.2 Txalonerreka eremuko 2 zenbakiko lurzatian zegoen % 86,15eko partaidetza lagata gauzatu zena. Partaidetza hori 2.959.294,81 eurotan balioetsia zegoen; beraz, aipatutako ekitaldian kopuru horri zegoen ondare-gehikuntza eragin zuen.
- Izan diren negoziazioak, lizibiatuen tratamendua dela-eta erantzukizuna deribatzen eskudientetik etorritako zorra gauzatan ordaintzeko eta ordainean emateko eskrituran - 2017ko azaroaren 3koan- gauzatu da (ikus 13. oharra).
- Bideragarritasun plan bat egitea 2017ko ekitaldian, 2017-2020 epealdirako hartutako konpromisoari aurre egiteko.

Adierazitakoaren ondorioz, 2017ko ekitaldiko kontabilitate-emaitza (262.668,41 €) negatiboa bada ere, ondare garbia eta maniobra-fondoa positiboak dira (1.300.412,90 € eta 123.011,29 €, hurrenez hurren).

Maniobra-fondoari dagokionez, urteko kontuak egiteko arauak, Kontabilitate Plan Orokorrean jasotakoak, xedatzen dute aktibo korranteak izango direla ustiaketa-ziklo arruntan egin daitezkeenak, gehienetan urtebeteko zikloan egiten direnak; denbora-epa bera hartzen da kontutan pasibo korranteetarako.

Azkoitia Lantzenen kasuan, ziklo hori urtebetekoa baino handiagoa da, gubxienez bere izakinak gauzatzekoa (12.643.028,10€) izakinei lotuta jasotako aurrerapenen galdagarritasun posiblearena (14.340.528,80€ 8.c oharra) (ikus 6 oharra), beraz, elkartearen eskubideak eta obligazioak -2017ko abenduaren 31ko aktibo eta pasibo arruntan gisa jasoak- azkenean efektiboak egiten diren uneari lotuta dago aipatutako maniobra-fondoaren saldoa.

2.5 Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Ekitaldia itxi den egunean, sozietateak ez du kontu-sail batean baino gehiagotan jasotako ondare-elementurik, ez balantzean, ez galera-irabazien kontuan, ez eta ondare garbiaren aldaketan egoera-orrian ere.

2.6 Kontabilitateko irizpideetako aldaketak

2017ko urtean ez dira kontabilitateko irizpideetako aldaketak egon.

2.7 Akatsen zuzenketa

Atxikitze diren urteko kontuen elaborazioan ez da akats adierazgarri aurkitu, beraz 2016ko urteko kontuetan dauden zenbatekoak ez dira taxutu izan behar.

3. OHARRA.- EMAITZEM BANAKETA

262.668,41 euroko galerak izan direnez, Batzar Orokorrari proposatu zaio galera horiek hurrengo ekitaldietako emaitza positiboen bidez berdintzea.

2016ko ekitaldian 154.042,62 €-ko etekinak izan zirenez, Batzar Orokorrari ondorengoa proposatu zitzaion eta honek onartu zuen:

1- 6.000,00€ legezko erreserbara zuzentzea.

2- 148.042,62€ "Aurreko urtealdietako emaitza negatiboak" kontuaren bidez konpentsatzea.

Halaber onartu zen bazkide-ekarpeneko zati bat, hau da, 2.383.490,09 €ko zenbatekoa, aurreko urtealdietako emaitza negatiboekin konpentsatzea eta gainerakoa borondatezko erreserbetara (575.804,72€).



4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

4.1 Ibilgetu ukiezina

Aplikazio informatikoak: eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera balioetsi dira, eta epigrafe honetan sartu dira web-orriak sortzeak eragindako gastuak. Elementu horiek hiru urteko balio-bizitza dutela jotzen da.

Balio-bizitza areagotzen ez duten konponketak eta mantentze-kostuak horiek sortu diren ekitaldiko galeren eta irabazien kontuan sartu dira.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan, sozietateak ez du erregistratu ibilgetu ukiezina narriatzeagatiko galerarik.

4.2 Ibilgetu materiala

Eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera balioetsi da. Behin prezioaren deskontuak edo merkealdiak kendu ondoren, fakturatutako zenbatekoaz gainera, kontuan hartu dira funtzionatzen hasi arteko gastu gehigarri guztiak eta zuzenki erlazionatutakoak ere; hala nola, lurra berdintzeko eta eraisteko, garraioko, aseguruako, instalazioko eta muntaiako gastuak edo antzekoak. Erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egon arte urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan sartu ditu sozietateak zuzenean eskuratzeari, eraikuntzari edo ekoizpenari egotz dakioken finantziario espezifikorekin edo generikorekin lotutako finantza-gastuak. Ibilgetu materialaren balioan sartu da, baita ere, desegiteak edo kentzeak sorrarazitako betebeharren balio eguneratuaren hasierako zenbatespena, bai eta aktiboarekin lotutako beste batzuen ere; hala nola, birgaitze-kostuena, betebeharrak horiek horniduren erregistroa dakartenean.

Ez dira aplikagarri konponketa handien aktibazioa eta kentze- eta birgaitze-gastuak.

Sozietateak ez dauka konpromisorik bere aktiboko ondasunak desegiteko, kentzeko edo birgaitzeko. Horregatik, ez dira aktiboetan kontabilizatu etorkizuneko horrelako betebeharrak estaltzeko balioak.

Elementu ibilgetu material baten balioa narriatzeagatiko galera erregistratu ahal izateko, horren kontabilitate-balio garbiak gainditu egin behar du horren zenbateko berreskuragarria. Arrazoizko balioaren (salmenta-gastuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena da balio berreskuragarria. Sozietateko Administrazio Kontseiluaren iritziz, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen horien balio berreskuragarria.

Dagokien gastuen kontura kargatu dira sozietateak egindako obrak eta lanak direla eta ekitaldian egindako gastuak. Aktibora gehitu dira ondasunen ekoizpen-ahalmena handiagotzea edo horien balio-bizitza luzatzea dakarten handitzeen edo hobekuntzen kostuak, horren balio handiago gisa. Gastu horien zenbatekoz kargatu dira indarrean dauden ibilgetu materialaren kontuak, eta sozietateak beretzat egindako lanen sarrerak jasotzen dituen partidari abonatu dira.

Alokatze finantzierotan, aktiboa kontabilizatu da horren izaeraren arabera, bai eta zenbateko bereko finantza-pasibo bat ere; alokatutako aktiboaren arrazoizko balioaren eta alokatzearen hasierako balio eguneratuaren arteko adostutako gutxieneko ordainketen artean baxuena izango da hori.



Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa egin da horiek martxan jartzeko moduan dauden unetik aurrera, modu linealean, horien balio-bizitzak irauten duen artean; eta hondar-baliorik ez dagoela kalkulatu da, balio-bizitzako honako urte hauen arabera:

Deskribapena	Urteak	Urteko %
Hilgarriak	10	10
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	4	25
Beste ibilgetu batzuk	10	10
Eralkuntzak	50	2

Erakunde publikoek emakida administratibo bidez, alokatze bidez edo beste edonolako kontratu bidez lagatako lursailetan eta instalazioetan sozietateak egiten dituen inbertsioak ibilgetutzat kontabilizatu dira, baldin eta inbertsio horiek eta lursail edo instalazio horiek bereizezinak badira, eta lursail edo instalazio horien gaitasuna eta ekoizpen-maila handitzen edo balio-bizitza luzatzen badute.

Ondasun horiek amortizatzeko, haien balio-bizitza edo lagapen-kontratuaren iraupena —balio-bizitza baino motzagoa bada— hartu da kontuan.

4.3 Ondasun higiezinetakako inbertsioak

Produkzioan erabiltzeko edo ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko beharrezko errentak, gainballoak edo biak lortzeko erabiltzen diren aktibo ez-korrente guztiak (higiezinak, zehazki), edo helburu administratiboetarako edo eragiketen jardunean saltzeko erabiltzen direnak sailkatu ditu elkarteak ondasun higiezinetakako inbertsioen atalean.

Ondasun higiezinetakako inbertsioak balioztatzeko lursailentarako eta eraikinetarako ibilgetu materialaren irizpideak erabili dira. Hauek:

- o Eraiki gabeko orubeak balioztatzeko orubea erosteko prezioa eta beste hainbat gastu eta irizpide hartu dira kontuan. Horien artean hauek: orubea egokitzeko gastuak; hala nola itxituretarako, lur-mugimenduetarako, saneamendu- eta drainatze-lanentarako, solairu berriko obrak egin ahal izateko eraikinak eraitsi behar direnean eraisketarako beharrezkoak diren gastuak; erosi aurretik egiten diren ikuskatzeen eta planoen gastuak; baita orubea birgaitzeko sortzen diren betekizunen gaur egungo balioaren hasierako zenbatespena ere.
- o Eraikinen balioztatzeko irizpide hauek hartu dira kontuan: erositako prezioa edo produkzio-kostua, instalazio edo elementu iraunkorrak barne direla; eraikuntzari atxikitako tasak eta proiektua egin eta obra zuzenduko duten profesionalen ordainsaria.

Alokatze-kontratuen bidez hirugarrenei alokatutako aktiboak bakoitzaren izaeraren arabera surkeztu dira eta ibilgetu materialaren eta ez-materialaren atalietan garatutako kontabilitate-printzipioak aplikatu dira. Indarrean diren alokatzeetatik sortzen diren diru-sarrerak, emandako pizgarrietatik garbiak, alokatze-epetan modu linealean sortutako irabazitza hartu dira.

Indarrean diren alokatze-eragiketetan, alokatutako ondasuna eta ondasun horren gaineko arrisku eta abantaila guztiak, errentatzailearen esku geratu dira.



4.4 Trukeak

Merkataritza izaera duten trukeetan, jasotako ibilgetu materiala balioesteko, kontuan hartu dira emandako aktiboaren arrazoizko balioa gehi horren truke emandako diru-kontrapartidak, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren ebidentzia garbirik ez badago, betiere azken horrek mugatuta.

Merkataritza-izaerako trukea egin dela ulertu da:

- Jasotako ibilgetuaren eskudiru-fluxuen arriskua, egutegia eta zenbatekoa bat ez badatoz emandako aktiboaren eskudiru-fluxuen konfigurazioarekin.
- Trukeak eragindako sozietatearen jardueren zergen ondorengo eskudiru-fluxuen balio eguneratua aldatu egin bada trukearen ondorioz.

Trukeak ez badu merkataritza-izaerarik, edo ezin bada egin eragiketan parte hartu duten elementuen arrazoizko balioaren zenbatespen fidagarririk, kontuan hartu dira ibilgetu materiala balioesteko emandako ondasunaren kontabilitate-balioa, gehi, hala badagokio, horren truke emandako diru-kontrapartidak; jasotako ibilgetua txikiagoa bada, horren arrazoizko balioak mugatuko du hori, eskuragarri badago.

4.5 Alokatze operatiboak

Alokatze operatiboetako eragiketetan, errentatzailearenak izango dira alokatutako ondasunaren jabetza eta ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak.

2017ko abenduaren 31n, sozietatea errentatzaile da, batez ere, dauzkan alokatze-kontratuetan.

Alokatzetik sortutako sarrerak galeren eta irabazien kontura abonatu dira linealki kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

4.6 Izakinak

Eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera balioetsi dira. Hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa da eskuratze-prezioa, behin deskontuak kendu direnean, bai eta zordunketen nominalera gehitutako interesak eta izakinak saltzeko kokatuta prest egoteko egindako gastu gehigarriak ere: garraioak, muga-zergak, aseguruak eta eskuratzeari egotz dakizkiokeen beste gastu batzuk. Ekoizpen-kostuari dagokionez, izakinak balioesteko, produktuari zuzenean egotz dakizkiokeen kostuak eta produktuari zeharka egotz dakizkiokeen kostuen arrazoizko zatia gehitu zaizkio lehengaiak eta beste materia kontsumigarri batzuk eskuratzeak eragindako kostuari.

Izakinak zergapetzen dituzten zeharkako zergak Ogasun Publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean soilik gehitu dira eskuratze-preziora edo ekoizpen-kostura.

Saltzeko urtebete baino gehiago behar duten izakinei dagokienez, finantza-gastuak gehitu dira, ibilgetu materialari buruzko arauan ezarritako baldintzei jarraituz.

Izakinen etorkizuneko hornikuntzak direla-eta hornitzaileei egindako aurrerapenak horien kostuaren arabera balioetsi dira.

Produktu zaharrituen, akastunen edo astiro mugitzen direnen balorazioa mugatu da horiek gauzatzeko balizko baliora.



Izakinen balio garbi bihurtzea horren eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua baino baxuagoa bada, behar diren zuzenketak egin dira balorazioan, eta gastu gisa aitortu dira galeren eta irabazien kontuan.

Izakinen balioa zuzendu behar izatea eragin zuten baldintzak desagertzen badira, lehengoratu egingo da zuzenketako zenbatekoa, eta sarrera gisa aitortuko da galeren eta irabazien kontuan.

4.7 Finantza-aktiboak

Sozietateak dituen finantza-aktiboak "Maileguak eta kobratzeko partidak" kategorian sailkatu dira. Finantza-aktibotzat hartu dira ondareen salmentaren bidez edo enpresaren saleroste-eragiketarako bideratzeko zerbitzuen bidez sortu diren finantza-aktiboak, eta, berez komertzialak izan ez arren, ondare-tresnak eta eratorriak ez diren finantza-aktiboak, zenbateko finkoen edo mugagarrien bidez kobratu direnak eta merkatu aktiboan negoziatu ez direnak.

Balantzean aitortzen diren unean balioetsi dira beren merkatuko baliora eta, ondoren, amortizatutako kostura balioetsi dira; interes-tasa efektiboa erabili da horretarako.

Aurretik esandakoan eraginik izan gabe, urtebetera arteko epe-betetzea duten merkataritza-eragiketarako eragindako eta kontratuzko interes-tasarik ez duten kredituak balioesteko, horien balio izendatua hartu da kontuan, bai hasierako aitortpenaren unean bai eta ondoren ere, betiere, eragin garrantzitsurik ez badauka fluxuak edo eguneratzeak.

Sozietateak hornidura bat esleitu du, ordainketa atzeratzeagatik, ordainketak eteteagatik, kaudimengabeziagatik, berandutzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik egoera irregularrean dauden bezeroen zorren estaldurako kaudimengabeziarako, azkenean betiko kobrazin izango direla kalkulatu den zenbatekoen arabera.

Sozietateak indargabetu egin ditu finantza-aktiboak, noiz eta iraungi direnean edo dagokion finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuen eskubideak laga direnean eta aktibo horiek berez dituzten arrisku eta onurak funtsezko eran eskualdatu direnean. Aldiz, Sozietateak ez ditu finantza-aktiboak indargabetu, eta finantza-pasibo bat kontabilizatu du, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berekoa, baldin eta finantza-aktiboaren lagapenek funtsezko eran atxiki badituzte berez dituzten arriskuak eta onurak.

4.8 Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak dira Sozietateak ordaintzeke dituen zorrak eta partidak, ondasunen salmentaren bidez eta enpresaren saleroste-eragiketarako bideratzeko zerbitzuen bidez sortu direnak, eta, berez komertzialak izan ez arren, finantza-tresna eratorritzat hartu ezin direnak.

Balantzean aitortzen diren unean balioetsi dira beren merkatuko baliora eta, ondoren, amortizatutako kostura balioetsi dira; interes-tasa efektiboa erabili da horretarako.

Aurretik esandakoan eraginik izan gabe, urtebetera arteko epe-betetzea duten merkataritza-eragiketarako eragindako eta kontratuzko interes-tasarik ez duten zorrak balioesteko, kontuan hartu da horien balio izendatua, bai hasierako aitortpenaren unean bai eta ondoren ere, betiere, eragin garrantzitsurik ez badauka fluxuak edo eguneratzeak.

Sozietateak finantza-pasiboak indargabetu ditu, noiz eta finantza-pasibo horiek sortu dituzten obligazioak amaituak direnean.



4.9 Saldoen sailkapena korronte eta ez-korronteetan

Dokumentu honekin batera aurkeztu den balantzean, saldoak ez-korronte eta korronteetan sailkatu dira. Korronteen artean daude sozietateak ohiko ustiapen-zikloan zehar saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo egitea espero dituen saldoak. Ez-korrontetzat hartu dira sailkapen horrekin bat ez datozen gainerako saldoak. Orokorrean, ustiapen-ziklo hau urtebeteko iraupenarekin bat etortzen ohi da, Sozietatearen kasuan, bere helburu soziala den jardueragatik, zizklo hau urtebete baino gehiago da. (Ikusi 2.4 oharra).

4.10 Mozkinen gaineko zergak.

Zerga korronteagatiko gastua zehazteko, batu egin behar dira zerga korronteagatiko gastua eta zerga geroratuak. Zerga korronteagatiko gastua zehazteko, indarrean dagoen karga-tasa aplikatu behar zaio zerga-irabaziari, eta horrela lortutako emaitza murriztu behar da ekitaldian aplikatutako hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan.

Denbora bateko diferentzietatik sortzen dira zerga geroratuagatiko aktiboak eta pasiboak; ordainduko direla edo etorkizunean berreskuratuko direla aurreikusten den zenbateko gisa definitu dira diferentzia horiek, eta aktiboen eta pasiboen liburuetako balioaren eta horien zerga-oinarriaren arteko diferentzietatik sortzen dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, pentsatu behar da horiek zer karga-tasatan berreskuratzea edo likidatzea espero den, eta tasa hori aplikatu denbora bateko diferentziari.

Konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboen eta sortutako eta aplikatu gabeko kenkari fiskalen kredituen ondorioz sortzen dira, baita ere, zerga geroratuagatiko aktiboak.

Zerga geroratuak dagokien pasiboa aitortzen da denboraldiko diferentzia zergapegarri guztientzat. Salbuespena izango da baldin eta denboraldiko diferentzia hori merkataritzako funts baten hasierako aitortpenetik edo beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aitortpenetik (negozio-konbinazio batean salbu) sortutako denboraldiko diferentzia bada, betiere, gauzatzeko unean zerga- eta kontabilitate-emaitzari eragiten ez dion eragiketa batean bada.

Bestalde, zerga geroratuagatiko aktiboak edo denboraldiko diferentzia kengarriekin identifikatzen direnei dagokienez, aktibo horiek soilik aitortu dira uste denean horiek efektibo egin ahal izateko sozietateak etorkizunean nahikoa zerga-irabazi izango dituela, eta ez datozenean zerga-emaitzari edo kontabilitate-emaitzari eragingo ez dion eragiketa bateko beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aitortpenetik (negozio-konbinazio batean salbu). Zerga geroratuagatiko gainerako aktibo guztiei dagokienez (zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatu gabeko kenkariak), aktibo horiek aitortu dira, soilik, efektibo egin ahal izateko sozietateak etorkizunean nahikoa zerga-irabazi izango dituela uste denean.

Kontabilitate-iriziera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratu guztiak berrikusi dira (bai aktiboak, bai eta pasiboak ere), indarrean jarraitzen dutela bermatzeko; gainera, egindako azterketen emaitzen arabera, zuzendu egin dira hala komeni bada.

Zerga geroratuagatiko gastua edo sarrera bat dator pasiboen eta aktiboen aitortpenarekin eta balio gabetzearekin; zerga geroratuagatik gerta daiteke hori, bai eta, hala dagokionean, kenkariak eta diru-laguntza izaera duten beste abantaila fiskal batzuk kontabilitatean sor daitekeen ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera aitortzeagatik eta galeren eta irabazien kontura egozteagatik ere.

4.11 Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak irabazkin-irizpidearen arabera egotzi dira; hau da, ondasunak eta zerbitzuak egiazki mugitu direnean, kontuan hartu gabe noiz sortzen den ondasun eta zerbitzu horiek dakarten diru- edo finantza-korrontea. Jasotako edo jaso beharreko kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera kalkulatu dira sarrera horiek.



Saldutako ondasunaren berezko arrisku eta ondasun nagusiak erosleari eskualdatu zaizkionean kontabilizatu dira salmentengatiko sarrerak, ondasun horren gaineko kudeaketa korrontea mantendu gabe, eta ondasunaren gaineko egiazko kontrola atxiki gabe.

Horretarako, Sozietateak balantzearen aktiboaren izakinei buruzko epigrafean jaso ditu hirugarrenei saldutako lursailen saldoak; hots, kontratu edo salerosketa-eskritura bidez saldutako lursailen saldoak, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak betetzeke dituen urbanizazio-konpromisoen ildotik. Xehetasun hori dela eta, eskualdatze-eragiketak ez daude guztiz burututa: ondasunak berez dituen arriskuak eta onurak ez zaizkio erosleari eskualdatu. Horregatik, eragiketa horiek ez dira indargabetuztat jo izakinen epigrafean: salmenta ez da erregistratu, ez eta eragiketa bakoitzaren emaitza ere.

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak kontabilizatu egin dira; betiere, transakzioaren emaitza fidagarritasunez kalkula badaiteke. Balantzea egitean zerbitzuak zer betetze-maila duen kontuan hartzen da.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez eta dibidenduen bidez kontabilizatu dira; betiere, akziodunak interes horiek jasotzeko eskubidea duela adierazi bada. Edonola ere, eskuratu ostean sortzen diren finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak sarreratzat kontabilizatu dira galeren eta irabazien kontuan.

Aldez aurretik salmentagatiko edo zerbitzuak emateagatiko sarreratzat alortutako zenbateko baten kobrantzaren inguruan zalantzarik izanez gero, kobraezintzat jotzen den zenbatekoa gainbeheraren balioa zuzentzeko gastutzat erregistratu da, eta ez sarrera txikitzat.

4.12 Hornidurak eta kontingentziak

Sozietatearentzat zenbateko eta une zehaztugabeko ondare-galerak eragin ditzaketen jasotako gertaeren ondorioz, obligazioak badaude egoera-balantzea egiteko unean, hornidura gisa erregistratu dira horiek egoera-balantzean; horiek balioesteko, obligazioa kitatzeko sozietateak zer ordaindu beharko duen kalkulatu da, eta horren balio eguneratua hartuko da kontuan, aintzat hartuta zer informazio dagoen gertatutakoaren eta horren ondorioen gainean, eta hornidura horiek eguneratzean sortu diren doikuntzak erregistratu dira, finantza-gastu gisa, gastu horiek sortuz doazen heinean.

Pasibo kontingenteak: iraganeko gertaeren ondorioz sor litezkeen obligazioak dira. Sozietatearen nahimenarekin loturarik ez duten gertakarien baitan dago obligazio horiek zertzea ala ez. Pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan jasotzen, eta haien buruzko informazioa memoriako oharretan ematen da, urrunekotzat jotzen ez diren heinean.

Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batengandik konpentsazio bat jasotzeko badago ere, horrek ez du zorraren zenbatekoa murriztu; halere, sozietatearen aktiboan kobratzeko eskubide hori aitortu da, betiere, ordainketa hori ziur jasoko dela jakinez gero, eta erregistratutako aktibo horrek ez du gaindituko kontabilitatean erregistratutako obligazioa.

4.13 Langile-gastuak erregistratzeko eta balioesteko irizpideak

Prestazio definituagatiko ordainketei dagokienez, pasibo bat eragiten dute langileei epe luzera egin beharreko ordainketak direla-eta egin beharreko kontribuzioek, ekitaldia ixtean sortutako kontribuzioak gauzatu ez badira.



Bidezko arrazoi bat egon ezean, sozietateek kalte-ordainak eman behar dizkiete langileei horien zerbitzuak eteten dituztenean.

Kalte-ordainengatik ordainketak sortzen badira, gastuetan kargatzen dira horiek irazpena egiteko erabakia hartzen den unean, ohiz kanpoko lan-amaierarik aurreikusten ez denez, eta erretiroa hartzen duten edo beren borondatez lana uzten duten langileek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez.

4.14 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzulgarriak ez diren kapital-laguntzak emandako zenbatekoaren arabera balioetsi dira; hasieran, zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera gisa aitortu dira, eta emaitzetara egozten dira diru-laguntza horiek finantzatutako aktiboak direla-eta aldi horretan izandako balio-galeraren proportzioan. Esandako hori ez da betetzen balioa galdu ezin duten aktiboak badira; horrela bada, inbentarioan horiek besterentzen diren edo horiei baja ematen zaien ekitaldiko emaitzara egotzi dira.

Laguntza itzulgarriak badira, diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zor gisa kontabilizatu dira.

Gastu espezifikoak finantzatzeko eman badira diru-laguntzak, sarrera gisa egotzi dira finantzatzen dituzten gastuak sortutako ekitaldian.

4.15 Ingurumenean eragina duten enpresa-jarduerak.

Sozietateak, higiezinaren sustatzaile gisa egiten dituen jardueren ezaugarriak direla eta, ez du eragin handirik ingurumenean. Horregatik, ez du ingurumenaren aldetik hobetu behar den ibilgeturik.

Dena den, ingurumena hobetzeko eta babesteko gastuak egin diren ekitaldietan, gastu horiek sarrerak eta gastuak balioesteko arauan jasotako irizpideak aplikatuz erregistratu dira. Hornikuntzak eta kontingentziak balioesteko arauan ezarritakoari jarraituz balioetsi dira ingurumena babestearekin eta hobetzearekin lotutako arriskuak eta kontingentziak.

4.16 Negozioak beste batzuekin batera

Sozietateak bere inbertsioak aldi baterako enpresa-elkarteetan (ABEE) kontabilizatzen ditu, eta bere balantzean dagokion zati proportzionala erregistratzen du, partaidetza-portzentajearen, elkarrekin kontrolatutako aktiboen eta elkarrekin egindako pasiboen arabera. Halaber, negozio partekatuan sortutako sarreretatik eta egindako gastuetatik dagokion zatia onartzen da galera-irabazien kontuan. Horrez gain, ondare garbiaren aldaketan egoera-orrion sartzen da elkarrekin egindako negozioan dagozkion kontu-sailen zenbatekoen zati proportzionala.

4.17 Lotutakoekin egiten diren transakzioak

Sozietateak merkatu-balioel lotutakoekin egin ditu bere eragiketa guztiak. Horretaz gainera, transferentzia-prezioek euskarri egokia dute, eta, horregatik, Sozietateko administratzaileek uste dute ez dagoela etorkizurrian pasibo garrantzitsurik ekar dezakeen arrisku nabarmenik.



5. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA, UKIEZINA ETA ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Ibilgetu materiala

Agiri honekin batera aurkeztu den egoera-balantzeko kapituluak, honako mugimendu hau egon da:

	Higigarriak	Informazio- prozesurako ekipamenduak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GARBIA, 2016KO EKITALDIA	10.014,94	67,55	10.082,49
(+) Gainerako sarrerak			
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak			
B) AMAIERAKO SALDO GARBIA, 2016KO EKITALDIA	10.014,94	67,55	10.082,49
E) METATUTAKO AMORTIZAZIOA 2016KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	8.944,97	50,86	8.995,83
(+) 2016ko ekitaldiko amortizaziorako homidura	922,52	16,69	939,21
(-) Irteera, baja, murrizketa eta intsuldatzeengatikotrikiagotzeak			
F) METATUTAKO AMORTIZAZIOA, 2016KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	9.867,49	67,55	9935,04
C) HASIERAKO SALDO GARBIA, 2017KO EKITALDIA	10.014,94	67,55	10.082,49
(+) Gainerako sarrerak			
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak			
D) AMAIERAKO SALDO GARBIA, 2017 EKITALDIA	10.014,94	67,55	10.082,49
G) METATUTAKO AMORTIZAZIOA 2017KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	9.867,49	67,55	9935,04
(+) 2017ko ekitaldiko amortizaziorako homidura	147,45	0	147,45
(-) Irteera, baja, murrizketa eta intsuldatzeengatikotrikiagotzeak			
H) METATUTAKO AMORTIZAZIOA 2017KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	10.014,94	67,55	10.082,49
I) KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2016KO EKITALDIKO AMAIERAN	147,45	0,00	147,45
J) KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2017KO EKITALDIKO AMAIERAN	0,00	0,00	0,00

Ez da egin ibilgetuko ondasunen balorazio-zuzenketarik.

Ibilgetu ukiezina

Balantzeko kapitulu honetan ez dago elementurik.



Ondasun higiezinetako inbertsioak

Agiri honekin batera aurkeztu den egoera-balantzeko kapituluan, honako mugimendu hauek egon dira:

	Elkargune kirol, soziokultural ekipamenduko erakuntza	kirol ekipamendua Ugarte Igarako estali gabeko igerilekuak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GARBIA, 2016KO EKITALDIA	8.206.259,59	2.611.052,00	10.817.311,59
(+) Gainerako sarrerak. Sustapen-bideko izakinak eta ibilgetura txertatutako amaitutako eraikinak			
(-) Irteerak, bajak edo muntzketak			
B) AMAIERAKO SALDO GARBIA, 2016KO EKITALDIA	8.206.259,59	2.611.052,00	10.817.311,59
E) METATUTAKO AMORTIZAZIOA, 2016KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	4.394.283,37	1.768.719,47	6.163.002,84
(+) 2016ko ekitaldirako amortizazioarako homidura	1.270.658,73	280.777,51	1.551.436,24
(+) Eskuratzeengatiko edo intsuldatzeengatiko handiagotzeak			
(-) Irteera, baja, muntzketak eta intsuldatzeengatiko txikiagotzeak			
F) METATUTAKO AMORTIZAZIOA, 2016KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	5.684.942,10	2.049.496,98	7.714.439,08
C) HASIERAKO SALDO GARBIA, 2017 EKITALDIA	8.206.259,59	2.611.052,00	10.817.311,59
(+) Gainerako sarrerak. Sustapen-bideko izakinak eta ibilgetura txertatutako amaitutako eraikinak			
(-) Irteerak, bajak edo muntzketak			
D) AMAIERAKO SALDO GARBIA, 2017 EKITALDIA	8.206.259,59	2.611.052,00	10.817.311,59
G) METATUTAKO AMORTIZAZIOA, 2017 EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA			
(+) 2017ko ekitaldirako amortizazioarako homidura	1.270.658,73	280.777,51	1.551.436,24
(+) Eskuratzeengatiko edo intsuldatzeengatiko handiagotzeak			
(-) Irteera, baja, muntzketak eta intsuldatzeengatiko txikiagotzeak			
H) METATUTAKO AMORTIZAZIOA, 2017 EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	6.935.600,63	2.330.274,49	9.265.875,32
I) KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2016KO EKITALDIA	2.541.317,49	561.555,02	3.102.872,51
J) KONTABILITATEKO BALIO GARBIA 2017KO EKITALDIA	1.270.658,76	280.777,51	1.551.436,27

Epigrafe honetan jaso dira Sozietateak Elkargune kultura-, kirol- eta aisialdi-ekipamenduko erakina eta Azkoitiko Udalaren lursailetan dauden igerileku irekiak eraikitzen gastatutako zenbatekoak, sozietateari kontraprestaziorik gabe utsita daudela 2019/01/01a arte.

Eraikinararen eta igerilekuen titulartasuna izateko eskubidea Udalarri dagokio, lurzorua jabetzaren akzesioaren printzipioari jarraituz. Akzesio-eskubide hori eraginkorra izango da 2019/01/01etik aurrera, betiere udal-sozietateak bere funtzionamendu arrunta mantentzen badu. Nolanahi ere, Udalbatza Osoak eskubide hori aurretiaz gauzatzeko ahalmena izan dezake.

Egoera hori izanik, eta 2019/12/31 arte, Elkargune Institutuak urteko 114.622,51 € ordainduko dizkio Azkoitia Lantzen SA sozietateari (BEZa barne eta kopuru hori ezin da berraztertu) alokairu gisa (7.d oharra).



Higiezin inbertsioak modu linealean amortizatzen dira kalkulaturako balio-bizitzan edo inbertsio horien xede diren lursailen lagapen-epetan, baldin eta lagapen-epa balio-bizitza baino laburragoa bada. Kasu honetan, ondasun horien bizitza erabilgarri zenbatetsia hasiera batean zehaztutako lagapenaren epea baino luzeagoa denez, azken epe horren arabera amortizatzen ari dira. Hortaz, lagapen-aldia amaitzean gelditzen diren urteetan oinarrituta ezarritako portzentajeak ondorengoak dira:

Deskribapena	Gelditzen diren Urteak	Urteko %
Elkarguna ekipamendua	1	15,5
Ugarte Igarako estali gabeko igerilskuak	1	10,75

Alokatze operatiboa

2016ko eta 2017ko ekitaldietan, alokatze operatiboko 2 kontratu egon dira indarrean. Alokatzek ezeztatu egin daitezke; hortaz, ez dago etorkizuneko kobrantza minimoen zenbatekorik.

2016ko eta 2017ko ekitaldien amaieran indarrean zeuden kontratuak kontuan hartuta, hauek dira, kalkuluen arabera, alokatzeagatik kobrantzen zenbatekoak:

Alokatze operatiboak: errentatzaileari buruzko informazioa	2016ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Alokatze operatiboengatik aurreikusitako etorkizuneko kobrantze zenbatekoa:		
Urtebete arte	208.814,03	182.027,22
Urtebete eta bost urte artean	217.929,87	94.929,32
Bost urte baino gehiago	0,00	0,00
Ekitaldiko samera gisa aitortutako kontingentzia-kuoten zenbatekoa	-	-

6. OHARRA.- IZAKINAK

Epigrafe honetako xehetasuna eta bertako balio-zuzenketa mugimendua 2017ko eta 2016ko ekitaldietakoa ondorengoa da:

Kontzeptua	2016.01.01	Sarrerak	Bajak	2016.12.31	Sarrerak	Bajak	2017.12.31
Izakinen kostua	18.008.037,89	3.165.921,16	-4.000.915,29	17.114.043,56	27.302,05	-177.023,47	16.964.322,14
Narriadura	-6.689.766,20	-146.626,35	2.510.144,22	-4.326.250,33		4.956,29	-4.321.294,04
Balio garbia	11.319.269,49	2.959.294,81	-1.490.771,07	12.787.793,23	27.302,05	-172.067,18	12.643.026,10
Hornitzaileen aurreapena	137.000,00	0,00	0,00	137.000,00	0,00	-137.000,00	0,00
Izakinak guztira	11.456.269,49	2.959.294,81	-1.490.771,07	12.924.793,23	27.302,05	-309.067,18	12.643.026,10

2017ko ekitaldian zehar sortu diren eragiketarik esanguratsuenak hauek dira: A.U. 11 Altamira-n Itun Batzarrari onartu zalon 18.608,43 €-ko derramari dagozkionak (ikus 7.d oharra); Txalonerreka 10.1 eta 10.2 puntuetako urbanizazio kostua gaurkotzeko ordainsariak, 3.671,95 € eta 5.021,67 € hurrenez hurren (ikus 8. oharra); eta Txalonerreka 10.1 puntuan letraduaren zerbitzu-sarietarako hornidura ezabatzeari dagokion 172.067,18 €-ko zenbatekoagatik baja (ikus 13. oharra). Eginoberreri eremuan lizibiatuak tratatzeko aurreko ekitaldian soberan kalkulatu zen kostua (4.956,29 €-koa) ere bajaran eman da.



Bestalde, 2017ko martxoaren 30ean, Oñartxoko V-4 partzela erosteko aukerari uko egiteko eskritura publiko bihurtu zen; hori dela eta, Azkoitia Lantzen-ek bere garaian aurreratutako dirua (137.000 € gehi BEZ) UISA-k itzuli dio.

2.4. oharrean adierazitakoaren arabera, ekitaldian egindako zenbatespenen artean nabarmentzekoak dira izakinen okerragotzeari dagozkionak. Urtero erregistratutako okerragotzea ikuskatzen da, ekitaldian gertatutako gorabeheretan oinarrituta (adibidez, gertatutako kostu gehigarriak, lurzati jakin batzuei dagokienean) eta merkatu-balioen bilakaera. Ildo horretan, sozietatearen jabetzako lurzati guztiei buruz 2013an izakinen balorazioa egin bazen ere, 2017ko martxoan aditu independenteek lurzati garrantzitsuenen beste tasazio bat egin dute.

Alde horretatik, Hierros Eginoren aurka jarritako prozedura judizialean Elkarteari erreklamaturako diruzenbatekoagatik erregistratutako horniduretatik eratorritako kostuaren igoeraren ondorioz, 2016an Egin Berri eremuan izandako 94.550,66 euroko narriadura azpimarragarria da (ikus 13. oharra). Aitzitik, 2016ko abenduaren 31n partzelaren narriadura leheneratu egin zen, 2017ko azaroaren 3an Eusko Jaurlaritzari entregatu baitzitzaion espezieetan egindako ordainketa gisa, 416.192,64 €-an baloratua, finkatutako prezioaren arabera (ikus 13. oharra), eta Txalonerreka 10.1 eremua urbanizatzeko proiektuaren kostua aditu independenteek gaurkotu dutelako eta kostua lehen aurreikusitakoa baino txikiagoa izan delako.

Beste aldetik, halaber, aipagarria da, egindako balioespenetan jakinarazi zela, kasu jakin batzuetan, tasazioaren emaitza gisa eman zen balioa lursail batzuen eskuratze-kostu edo kontabilitate-balioa baino handiagoa zela. Alde positibo horien ondorioz ez ziren sozietatearen kontabilitate-erregistroetan balio horiek gorantz zuzendu, aplikagarriak diren izakin-balorazioa egiteko arauak xedatutakoari jarraiki. Hala ere, gaur egun, estimazioen arabera, goranzko zuzenketa horiek 1.117.745,87 euroko gainbalio ezkutua osatuko lukete

7. OHARRA.- FINANTZA-AKTIBOAK

- a) *Finantza-aktiboaren kategoriak, taldeko, talde anitzeko eta elkarteko enpresen egindako inbertsioak salbu.*

Jarraian ikus daiteke, kategoriatan sailkatuta, sozietatearen epe motzeko balantzearen aktibo korronteko finantza-tresnei buruzko informazioa, esku-dirua eta beste aktibo balioak, ezta Administrazio Publikoekin saldoak aintzat hartu gabe:

KATEGORIAK	KATEGORIAK	
	KREDITU ERATORRIAK BESTERIK	
	2016ko eklt.	2017ko skit.
Maileguak eta kobratzeko partidak	854.357,82	499.025,94
Epemugaraino mantendutako inbertsioak.	0,00	925.000,00
GUZTIRA	854.357,82	1.424.025,94



b) Epemugen araberako sailkapena.

Hona hemen finantza-aktiboen epemugak, 2016ko eta 2017ko ekitaldien amaieraren ondoko urteetako bakoitzean, Sozietatearen kategorien arabera sailkatuta:

2017ko Ekitaldia

	2016	2019	2020	2021	2022 eta hurrengoak	GUZTIRA
Merkataritzako zordunak/kobratzeko eta beste kontu batzuk	496.999,92	2.026,02	0,00	0,00	0,00	499.025,94
Salmenten eta zerbitzuen bezeroak	400.000,00	2.026,02	0,00	0,00	0,00	402.026,02
Askotariko zordunak	96.999,92	0,00	0,00	0,00	0,00	96.999,92
Epe laburrerako inbertsio finantzartokak	925.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	925.000,00
GUZTIRA	1.421.999,92	2.026,02	0,00	0,00	0,00	1.424.025,94

2016ko Ekitaldia

	2017	2018	2019	2020	2021 eta hurrengoak	TOTAL
Merkataritzako zordunak/kobratzeko eta beste kontu batzuk	454.357,82	400.000,00	0,00	0,00	0,00	854.357,82
Salmenten eta zerbitzuen bezeroak	402.891,18	400.000,00	0,00	0,00	0,00	802.891,18
Askotariko zordunak	51.466,64	0,00	0,00	0,00	0,00	51.466,64
GUZTIRA	454.357,82	400.000,00	0,00	0,00	0,00	854.357,82

c) Kreditu-arriskuak eragindako balio-narriatzeagatik egindako zuzenketak.

Ez dago kreditu arriskuak eragindako balio-galeraren diru-sail bat bera ere.

d) Lotutako alderdiak

- Azkoitia Lantzen, S.A. enpresak % 51ko partaidetza dauka "Txalon Erreka DBEE" izen laburra daukan aldi baterako enpresa-elkartean. 2004ko apirilaren 28an eratu zen enpresa-elkarte hori, lau urterako gehienenez ere; Azkoitiko Udaletxean dauka helbide soziala, eta U20841912 da IFZ.

2006an deuseztatu zen; beraz, jarduerarik gabe dago orain, eta eskritura publikoan formalizatzen dago.

- Era berean, 2009ko maiatzaren 15ean Azkoitiko 10.2 E.U. Hitzarmen-Batzarra eratu zen. Batzar horren egitekoa Txalon Erreka 10.2 E.U. urbanizatzen lanak burutzea da. Azkoitia Lantzen, S.A. elkarteak %50eko partaidetza du batzar horretan eta Muno S.A. enpresak beste %50ekoa.

2009ko abenduaren 11n egin zen Batzarrerako aurreneko diru-ekarpena; 2.000 €, zehazki. 2017ko ekitaldian ez da jarduerarik egon.



- 2011ko maiatzaren 17an, HA 11 Altamirako Hitzarmen Batzordea osatu zen, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI handitzeko lanak kudeatzeko eta babes ofizialeko nahiz merkatu libreko etxebizitzaren programa bat egiteko, besteak beste.
 Eskatutako hainbanatze (BEZa aparte) partaidetzaren % 22,9585 dagokionak, honako hauek izan dira:

2011/07/22: 14.592,27 €
 2012/07/19: 3.891,27 €
 2013/07/08: 2.276,88 €
 2015/02/23: 1.846,49 €
 2017/10/30: 18.608,43 €

- 2011ko apirilaren 7an, HA 13ko 1 egikaritze-unitateko —Intsausti— Azkoitiko Antolamenduaren Arau Subsidiarioen Hitzarmen Batzordea osatu zen.

Orain arte, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak guztira 140.648,74 euro (BEZa aparte) eman dizkio batzorde horri hainbanatzeengatik. Halaber, Hitzarmen Batzordeari fakturatu dio Barne Erreformako Plan Bereziaren eta Hirigintza Jarduketa Programaren idazketa (Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak ordaindu zuen 2009ko ekitaldian). Batzordeak 2.026,02 euro eman behar dizkio Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateari; hau da, jasandako BEZaren (% 16) eta jasanarazitakoaren (% 18) arteko aldea.

2011ko azaroaren 29ko ebazpena hartu arte, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak % 34,0826ko partaidetza zuen, gehi Sierras Sabi S.A. sozietatearen partaidetza (% 25,7916) eta Biteso S.L. sozietatearena (% 31,3779), guztira % 91,2521. Biteso, S.L. sozietatearekiko akordioaren ondoren bere partaidetza % 34,0826tan gelditu da.

- 2016ko eta 2017ko ekitaldietan Azkoitiko Udalarekin (sozietateko bazkide bakarra) eta Elkargune Institutuarekin (Azkoitiko Udalaren mende dagoen organismo) egindako eragiketak eta saldo zordunak nahiz hartzekodunak hauexek izan ziren ekitaldiaren amaieran:

Deskribapena	2016		2017	
	Gastuak	Sarrerak	Gastuak	Sarrerak
Azkoitiko Udala				
Negozio-zifraren zenbateko osoa		200,00		200,00
Beste zergak	55.557,45		24.301,87	
Udaleko diru-laguntza		48.586,34		94.999,92
Elkargune Institutua				
Alokairuak		94.729,32		94.729,32
Eragiketen bolumena guztira	55.557,45	143.515,96	24.301,87	189.929,24

Deskribapena	2016.12.31		2017.12.31	
	B.Zorduna	B.Hartzekoduna	B.Zorduna	B.Hartzekoduna
Azkoitiko udala	48.586,64	27.182,42	94.999,92	10.495,14
Elkargune Institutua	0,00	0,00	0,00	0,00
Saldoen guztizkoa itxieran	48.586,64	27.182,42	94.999,92	10.495,14



8. OHARRA.- FINANTZA-PASIBOAK

a) Finantza-pasiboen kategoriak.

Jarraian ikus daiteke sozietatearen epe motzeko balantzearen pasiboko finantza-tresnei buruzko informazioa (Administrazio Publikoekin saldoak aintzat hartu gabe), kategoriatan sailkatuta:

KATEGORIAK	FINANTZA-INBERTSIOAK EPE MOTZERA			
	Deribatuak eta beste batzuk		GUZTIRA	
	2017ko Ekitaldia	2016ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia	2016ko Ekitaldia
Zorrak eta ordaintzeko partidak	14.374.199,69	14.346.013,44	14.374.199,69	14.346.013,44
GUZTIRA	14.374.199,69	14.346.013,44	14.374.199,69	14.346.013,44

b) Epemugaren arabera sailkapena

Hona hemen finantza-pasiboen epemugak, 2016ko eta 2017ko ekitaldien amaieraren ondoko urteetako bakoitzean, Sozietatearen kategorien arabera sailkatuta:

2017ko Ekitaldia

	Epemuga urtetan							GUZTIRA
	2018	2019	2020	2021	2022	2023 eta hurrengoak		
Epe motzeko zorraak	379,50						379,50	
Beste finantza-pasibo batzuk	379,50						379,50	
Hartzekodun komertzialak/Ordaintzeko beste kontu batzuk	33.291,39	6.611.132,96	0,00	0,00	0,00	7.729.395,84	14.373.820,19	
Hornitzaileak	20.445,03						20.445,03	
Hainbat hartzekodun	10.445,20						10.445,20	
Langileak	2.401,16						2.401,16	
Bezeroek emandako aurrerapenak		6.611.132,96				7.729.395,84	14.340.528,80	
GUZTIRA	33.670,89	6.611.132,96	0,00	0,00	0,00	7.729.395,84	14.374.199,69	

2016ko Ekitaldia

	Epemuga urtetan							GUZTIRA
	2017	2018	2019	2020	2021	2022 eta hurrengoak		
Epe motzeko zorraak	379,50						379,50	
Beste finantza-pasibo batzuk	379,50						379,50	
Hartzekodun komertzialak/Ordaintzeko beste kontu batzuk	1.759.831,21	0,00	6.611.132,96	0,00	0,00	5.976.669,77	14.345.633,94	
Hornitzaileak	88.393,81						88.393,81	
Hainbat hartzekodun	1.669.055,46						1.669.055,46	
Langileak	2.381,92						2.381,92	
Bezeroek emandako aurrerapenak			6.611.132,96			5.974.669,77	12.585.802,73	
GUZTIRA	1.760.210,71	0,00	6.611.132,96	0,00	0,00	5.974.669,77	14.346.013,44	



c) **Bezeroek emandako aurrerapenak eta salerosketa-konpromisoak:**

Hona hemen bezeroek emandako aurrerapenen xehetasunak, 2017ko eta 2016ko ekitaldien amaieran:

2017ko Ekitaldia

	Ze urtetan eman ziren aurrerapenak				GUZTIRA
	2006	2007	2009	2017	2017.12.31
EUSKO JAURLARITZA			3.174.669,77	1.754.726,07	4.929.395,84
KUTXA	2.800.000,00				2.800.000,00
ELEA	620.689,66	2.023.763,30			2.644.452,96
SERGOA		3.966.680,00			3.966.680,00
GUZTIRA	3.420.689,66	5.990.443,30	3.174.669,77	1.754.726,07	14.340.528,80

2016ko Ekitaldia

	Ze urtetan eman ziren aurrerapenak			GUZTIRA
	2006	2007	2009	2016.12.31
EUSKO JAURLARITZA			3.174.669,77	3.174.669,77
KUTXA	2.800.000,00			2.800.000,00
ELEA	620.689,66	2.023.763,30		2.644.452,96
SERGOA		3.966.680,00		3.966.680,00
GUZTIRA	3.420.689,66	5.990.443,30	3.174.669,77	12.585.802,73

10.2 H.A. Txalon Errekako eremuan jasotako aurrerapenak:

2009ko azaroan, eskritura egin zen notario aurrean 10.2 H.A Txalon Errekako partzela bat saltzeko Eusko Jaurlaritzari. Eragiketa hartan kobratutako kopuru osoa 3.174.669,77 euro izan zen.

Kutxari kobratutako 2.800.000 €-ko aurrerapena, 10.2. H.A Txalon Errekako 10. sektoreko partzela urbanizatuaren salerosketa-kontratuari dagokio. Eskritura sinatzea falta da, halaber aipatzea salerosketa-kontratuak honela diola:

"Ondasunari 2.800.000 €-ko prezioa ezarri zaio, behin-behinekoz, BEZa sartu gabe, harik eta lurzati horri buruzko zehaztapenak xehetasunez eraikitzen diren arte..."

Lurzatiaren behin betiko prezioa, Eraikinaren Behin-behineko Kalifikazioan jasotako azalera erabilgarrietatik ondorioztatzen dena izango da. Ildo horretan, 2.800.000 €-ko prezio aurreratua finkatu egingo da, eta soberako metro karratuei, eragiketa eskritura publikoan formalizatzeke unean indarrean dauden prezioak aplikatuko zaizkie".

Partzela horiek urbanizatzearen karga Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateari dagokio. 2017ko ekitaldiaren amaieran, urbanizazio-lanak hasi gaba daude eta hasiera ere ez da aurreikusten 2020a baino lehen. Bideragarritasun plana egiteko, 2017ko martxoan urbanizazio kostuak eguneratu ondoren, aurreikusten da lan horiek 2.154.956 euroko kostua izango lukezela. Edonola ere, urbanizazio-konpromiso hori bete ez denez, aurrerapen gisa kobratutako zenbatekoak ez dira sarreratzat jaso.



• 10.1 H.A. Txalon Errekako 10 Sektorean jasotako aurrerapenak:

Eleari eta Sergoari kobratutako aurrerapenak Txalon Errekako 10 sektoreko HA 10.1eko partzela urbanizatuen salerosketa-kontratuei dagozkie. Kontratuak 2006an eta 2007an formalizatu ziren. Zenbatekoak 2.644.452,96 euro eta 3.966.680,00 euro izan ziren, hurrenez hurren.

Donostiako lehen auzialdiko 7 zenbakiko epaltegian dagoen 558/2010 zenbakiko prozedura judicial arruntean eta Donostiako lehen auzialdiko 4 zenbakiko epaltegian dagoen 394/2010 zenbakiko prozedura judicial arruntean Azkoitia Lantzen sozietatearen eta Sergoa SL zein Elea Gestión Empresarial SL merkataritzako sozietateen artean prozedurak amaitzeko adostutako akordioaren ondorioz, 2011ko urriaren 10ean kontratu berri bat sinatu zen Sergoarekin, zeinaren bidez adostu zen Txalonerreka 10.1. HA birpartzelatzeko proiektuko 7. lur-zatiaren % 60 saltzeko. Kontraprestazioaren zati gisa, Sergoak 3 etxebizitzaren % 60 entregatuko du; 2022ko ekainaren 30ean, beranduenez. Kontratu horretan bertan, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak ebazpen bidez konpromisoa hartu zuen urbanizazio-egokitzapen batzuk sustatzeko. 2011ko urriaren 18an, Azkoitia Lantzenek eta Eleak beste kontratu bat sinatu zuten, Sergoarekin formalizatutakoaren baidintza berberak zituena. Kasu horretan, aipatutako 7. partzelaren % 40 besterentzea adostu zuten. Eragiketa horientzako salmenta-konpromisoak 1.322.226,65 eurokoak dira. Etxebizitzen zenbatekoa ez da oraindik kuantifikatu. Etxebizitzak ordainetan jasoko dira, eta salmenta-konpromiso bat dira Sozietatearentzat.

2011ko azaroan, Elearekin eta Sergoarekin sinatutako kontratu pribatuak eskritura publiko bihurtu ziren. 2017ko ekitaldiaren bukaeran, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietatea urbanizazio-lanak egiten hasi gabe daude. Hori dela eta, hartutako konpromisoak bete ez direnez, ez da jaso eragiketa horiei dagokien sarrerarik, ez eta eragiketa horien emaltzarik ere, beraz.

Bestalde, 2017. urtean, Txalonerreka 4 zenbakiko lurzatia Eusko Jaurlaritzari eman zaio, Hierros Eguino SL enpresaren aurka jarraitutako erantzukizun-deribazioatik etorritako zorra, 1.754.726,07 €-koa, kitatzeko gauzatan egindako ordainketaz (ikus 13. oharra).

Kalkuluen arabera, eremu hori guztiz urbanizatzea 4.765.020,68 euroko karga izatea aurreikusten da, 2017ko martxoan egindako urbanizazio-kostuen eguneraketaren arabera. Sergoarekin eta Elearekin formalizatutako hitzarmenetan ez da aurreikusten urbanizazio-lan horiek 2019. urtea baino lehenago egitea.

• Beste konpromiso batzuk

Azaldutako konpromisoez gain, Sozietateak urbanizazio-karga hauek ditu, bere jabetzan dituen lursailei dagokienez:

- 1) Altamira lursailak urbanizatzeko karga: 676.719,00 €.



d) **Hirugarrenengandik jasotako eta hirugarrenei emandako bermeak:**

- Hona hemen Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateari emandako bermeen zerrenda:

ENPRESA	ABALA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	EPEA
HIRIGINTZA, S.A.	ELKARGI	Azkoitiko Oñartxo zabortegean egin behar diren ingurumeneko egokitze-lanen proiektua, obra-zuzendaritza eta segurtasun- eta osasun-koordinazio zereginen zerbitzuak	2.850,00	-
AITOR GABILONDO RUIZ	KUTXABANK	Azkoitia Lantzen, S.A. enpresarentzako lege aholkularia	1.800,00	-
IRAGAZ WATIN, S.A.	BANCO DE SABADELL, S.A.	Azkoitiko Eginoberrri eremuan kokaturiko Oinadertxo zabortegean sortzen diren lixibiatuak bildu, tratatu, araztu eta kontrolatzeko zerbitzua	19.000,00	-

e) **Kreditu-polizak edo deskontu-lerroak**

Ez dago kreditu-polizarik, ezta deskontu-lerrorik ere.

9. OHARRA- FUNTS BEREKIAK

Kapital soziala 60.000,00 euro nominalekoa da, 2016ko ekitaldian zehar gaineren konpentsazioaren bidez burututako kapital-murrizketaren ondoren, eta honela osatzen da:

Klasak	Akzioak			Euroak			
	Serieak	Kopurua	Balio nominala	Guztira	Eskatu gabeko ordainketak	Galdagarritasun-data	Ordainketan erabilitako kapitala
bakarra 1-S01.000		501.000,00	0,119760479041916	60.000,00			60.000,00

Azkoitiko Udalarena da % 100.

Zenbait baldintzek mugatzen dute erreserben erabilgarritasuna:

• **Lege-erreserba**

Mozkinen % 10 lege-erreserba osatzeko erabili behar da, erreserba hori kapital sozialaren % 20ra iritsi arte. Lege-erreserba soilik erabili daiteke gainerak konpentsatzeko edo kapitala handiagotzeko, dagoeneko handiagotutako kapitalaren % 10 gainditzen duen zatia dagokionez. 2016ko abenduaren 31an lege-erreserbaren zenbatekoa 6.000,00 € da eta 2017ko abenduaren 31an 12.000,00 €.

10. OHARRA- ZERGA-EGOERA

Hona hemen herri-administrazioekiko saildoak:

Kontzeptua	2017		2016	
	S. Zordun	S.hartzekodun	S. zordun	S.hartzekodun
OP BEZagatik zordun/hartzekodun		126.285,00		268.718,28
OP SZagatik zordun	39.856,54		39.690,80	
OP PFEZagatik hartzekodun		3.846,11		4.046,54
Gizarte Segurantzza		1.397,32		1.356,64
Guztira	39.856,54	131.528,43	39.690,80	274.121,46



10.1 Mozkinen gaineko zergak

Hona hemen kontabilitate-emaitzaren eta zerga-oinarriaren arteko berdinkatzea, 2016ko eta 2017ko ekitaldietan:

Kontzeptua	2017	2016
Zergak ezarri aurreko emaitza	-262.668,41	154.042,62
Denborazko aldeak	0,00	0,00
Ondareari egotzitako gastuak	0,00	0,00
Aurretiko zerga-oinarria	-262.668,41	154.042,62
Zerga-oinarri negatiboa. Konpentsatzea aurreko ekitaldi		-154.042,62
Zerga-oinarria	-262.668,41	0,00

2016ko eta 2017ko ekitaldien amaieran jasotako "zergapeko denbora-diferentziengatiko pasiboak" 578.069,37 euro eta 289.034,66 euro dira, hurrenez hurren, eta Sozietateak jasotako diru-laguntza itzulezinen zerga-ondorioei (% 24) dagozkie. Pasibo horiek ondare garbian jasota daude, emaitzetan egotzi beharreko zenbateko garbiarekin.

Dokumentu honekin batera aurkeztzen den balantzean, sozietateak ez du zuhurtasunez erregistratu denboraldiko diferentzia kengarrien, oinarri zergapegarri negatiboen eta beste kreditu fiskal batzuen zerga geroratuagatiko aktiboak:

Zerga-oinarri negatiboak	2017	2016	Epea
2008ko ekitaldian sortuak	15.446,15	15.446,15	2023
2009ko ekitaldian sortuak	18.770,40	18.770,40	2024
2011ko ekitaldian sortuak	2.577.396,89	2.577.396,89	2026
2012ko ekitaldian sortuak	2.404.928,38	2.404.928,38	2027
2014ko ekitaldian sortuak	1.318.260,40	1.318.260,40	2029
2017ko ekitaldian sortuak	262.668,41		2032
Total	6.597.470,63	6.334.802,22	

Ez dago pizgarri fiskalik ekitaldian, ez aplikatuta, ez eta aplikatzeko ere ondorengo ekitaldietan. Indarrean dagoen zerga-tasa orokorra aurreko urtekoaren berdina da.

Azkeneko lau ekitaldiak sartzen dira ikuskapenean. Zerga aitortpenak ezin dira behin-betikotzat hartu horien preskripziara arte, edo eta zerga-agintaritzek onartzen dituzten arte, zerga-legedia era desberdinetan interpretatu badaiteke ere. Behin-behineko ikuskapen bat dela eta zerga-pasibo gehigarriren bat nabarmentzen bada, Administrazioek diote horrek ez duela eragin garrantzitsurik izango urteko kontuetan, horiek osotasunean hartuta.



Ez da zergarik ordaindu behar, ekitaldiko oinarri ezargarría negatiboa izatean, 2017ko ekitaldiko zerga kitatu ostean itzuli beharreko zenbatekoa 39.856,54 euro da, eta atxikipenei eta Ogasunari egindako ordainketei dagokie. Hona hemen xehetasunak:

- Lidi-i alokatutako lokaiaren % 19ko atxikipenaren zenbatekoa 21.811,20 euro.
- Elkarguneko ekipamenduen alokairuaren %19ko atxikipenaren zenbatekoa 17.998,56€ da.
- Azkoitiko Udalari baratze-erabilerarako alokatutako lur-sailaren % 19ko atxikipenaren zenbatekoa 38,00 €-koa da.
- Epe finkorako gordalluaren atxikipenaren zenbatekoa 8,78 €-koa da.

10.2 Beste zerga batzuk: 2017ko eta 2016ko ekitaldietan 27.341,48 € eta 57.611,60 € erregistratu dira, hurrenez hurren, batez ere ondasun higiezinaren gaineko zergei eta lur salmenten gainbalioei dagozkienak (11. oharra).

11. OHARRA-. SARRERAK ETA GASTUAK

- Jarraian ikus daitezke galeren eta irabazien kontuko xehetasunak:

Galeren eta irabazien kontuko xehetasunak	2017ko Ekitaldia	2016ko Ekitaldia
1. Salgai-kontsumoa	262.373,48	1.588.305,22
a) Erosketak, itzultze garblak eta deskontu guztiak; eta horien artean:		
- naziokoak	117.603,35	3.056.828,96
b) Izakinen aldakuntzak	149.721,42	894.994,13
c) Izakinen nariadura	-4.956,29	2.363.517,87
3. Karga sozialak:	13.909,44	13.504,56
a) Gizarte Segurantzaren kontura	13.909,44	13.504,56
4. Ondasun-salmenta eta zerbitzu-amatez, ondasunen ez monetarioen eta zerbitzuen truke	0,00	0,00
5. Enpresaren ohiko jardueratik kanpo sortutako emaitzak, "beste emaitzak batzuk" atalean sartzen direnak	-176.277,42	-96.402,97
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	74.141,47	105.782,85
a) Kanpoko zerbitzuak	46.799,99	48.171,25
b) Zergak	27.341,48	57.611,60
c) Merkataritzako kredituen eta hutsegín Nariatzeagatik balorazio-zuzenketa.	0,00	0,00

- **Beste emaitzak:**

2016ko ekitaldian partida honetan jasotako zenbatekoa dagokio bereziki erregistratutako hornikuntzaren ondorioz sortutako 94.550,66€-ko gastuari, Hierros Eginoren aurkako prozedura judizialaren araberakoa dena (13. oharra, aurreko ekitaldietan, etxebizitzak entregatzeko hartutako konpromiso jakin batzuei buruz lortutako kalte-ordainen konpentsazio akordioaren ostean zorra minorizatzeari dagokion zenbatekoa ere bai, 188.900,00 € gutzira.

2017an jasotako zenbatekoa batez ere letradu aholkulariaren ordainsarien hornidura (172.067,18 €) ezabatzeari dagokio (13. oharra).



12. OHARRA.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Honako koadro honetan banakatu da balantzeko azpitaldeetan jasotako mugimenduen azterketa; bertan zehaztu dira hasierako eta amaierako saldoa eta handiagotzeak eta murrizteak ere:

	2017ko Ekitaldia	2016ko Ekitaldia
SALDOA, EKITALDIAREN HASIERAN	1.830.553,14	2.745.829,68
(-) Ekitaldiaren emaitzara pasatako dirulaguntzak	-915.276,55	-915.276,55
SALDOA, EKITALDIAREN AMAIERAN	915.276,59	1.830.553,14

Jasotako diru-laguntzak Azkoitiko Udalak emandakoak dira.

Horrez gain, 2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar, Azkoitiko Udalaren aldetik ustiapeneko diru laguntzak jaso dira, erakundeak bere gain zuzenean hartutako lixibiatuen tratamendurako kostua finantzatzera bideratuak (94.999,92 € eta 48.586,64 €-koak, hurrenez hurren).

Sozietateak betetzen ditu diru-laguntza horiek eskuratzeko eta mantentzeko eskatzen diren baldintza legalak.

13. OHARRA.- HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

• Hornidurak

Hona hemen "Epe luzeko hornidurak" epigrafean izandako mugimenduen xehetasunak:

Kontzeptua	2015.12.31	Altak/Bajak/ Eskualdatz.	2016.12.31	Altak/Bajak/ Eskualdatz.	2017.12.31
Abaunzekin eginiko konpromisoak	60.000,00		60.000,00		60.000,00
Hierros Eginoren erreklamazioa	1.571.370,84	-1.546.370,84	25.000,00		25.000,00
Aholkulari letradunaren ordainsariak	172.067,18		172.067,18	-172.067,18	0,00
Guztira	1.803.438,02	-1.546.370,84	257.067,18	-172.067,18	85.000,00

- **Konpromisoak Abaunz anai-arrebak:** Saldoa 60.000,00 euro zen 2016ko ekitaldiaren eta 2017ko ekitaldiaren amaieran. Abaunz anaiekin hartutako konpromisoek kalkuluen arabera duten kostuari dagokio saldo hori. Konpromiso horiek lurra erosteko eragiketa bati dagozkio (2008an egin zen erosketa horren eskritura). Oraindik ez da lanik egin lur horietan. Erosketa horretan ezarri zenez, prezioaren zati bat ordaintzeko, Azkoitia Lantzen S.A.U. sozietateak lanak egingo ditu Tallenta deritzon partzelan (Txalon Errekako HA 10.1 eremuan), inguruko lurren kotak mugatzearen eta aldatzearen ondorioz gertatzen diren kalteak eta aldaketak saihesteko.

- **Egino Berri eremua (425/2012 Prozedura Arrunta):**

Sozietateak 2008an lursail batzuen salerosketa kontratua sinatu eta 2009an eskriturak egin zituen. Lursail horietan, lehen, Eginoberrri/Olnedertxo zabortegia zegoen. Zabortegia itxita dago, gaur egun. Eusko Jauriaritzak baimena eman zuen inertizatutako altzairu-hautsak bertara botatzeko. 2010ean, Ingurumeneko sailburuordeak ingurumeneko baimen bateratua eman zion Hierros Egino S.L. enpresari (zabortegiaren ustiapenaren titularra zen), zabortegia itxi zezan, eta lixibiatuak tratatzeko proposatutako metodologia jaso zuen.

Azkoitia Lantzen S.A. sozietateak eta lursailen jabeek 2009an sinatutako salerosketa-eskrituran jasotako konpromisoen arabera, Sozietateak bere gain hartu zuen lixibiatuak tratatzeko lana (gehenez, 500.000,00 euro).



2011ko eta 2012ko ekitaldietan, 485.000,00 euro eta 130.000,00 euro gastatu ziren, gutxi gorabehera, lixibiatuak tratatzeko eta ingurumena babesteko, hurrenez hurren. Zenbateko horiek eta aurreko ekitaldietan gastatutakoek gainditu egiten zituzten Azkoitia Lantzen S.A. sozietateak hartutako konpromisoak, beraz, 2012ko irailaren 21ean, Sozietateak "Hierros Eguino, S.L."-ren, José Luis Zurutuza Arratibel jaunaren eta Roberto Parra Iñiguez de Gordo jaunaren aurkako auzi-demanda jarri zuen Azpeitiko Lehen Auzialdiko 2. Epaitegian, arestian aipatutako salerosketa-eskritura, 2009ko otsailaren 25ean sinatutakoa, dela-eta sortutako obligazioak ez betetzeagatik.

2013ko azaroaren 12an, 425/2012 prozedurari buruzko epaia eman zen. Bertan, ebatzi zen partzialki onartzea Azkoitia Lantzen SA sozietateak jarritako auzi-demanda.

Hala ere, sententzia hau Gipuzkoako Lurralde Auzitegira errekurritu zuten, 2014ko maiatzaren 27an, 93/2014 zenbateko epaia emanez xedatzen Azkoitia Lantzen, S.A.k erabat kudeatu behar duela Oñartzoko zabortegiko instalazioetatik datozen lixibiatuen garbiketa eta tratamendua.

Zuhertasunez, sozietateak 2014ko ekitaldian balioetsitako zenbatekoaren hornidura bat erregistratu zuen (Eusko Jauriaritzak exekuzio subsidiarioan egindako gastuen 1.026.299,17€-ko zenbatekoa).

Kasazio-interesaren bidezko Errekurtso Kasazioa aurkeztu zen 93/2014 zk.-dun epaiaren aurrean. Hala ere Auzitegi Gorenak emandako 2015eko abenduaren 9ko Autoaren bidez ebatzi zuen kasazioko errekurtsoren izapidetzea ez onartzea.

Beraz, Entzutegi Probintzialak emandako epaiari jarraituz eta irmoa dena, Azkoitia Lantzen sozietateak bete egin beharko zituen kontratuan bereganatutako obligazioak; hau da, lixibiatuak arazteko eta tratatzeko lanen kudeaketa orokorrari ekin beharko dio. Hortaz, Eusko Jauriaritzak orain arte ordezkotako izaeraz egikaritu duen kudeaketarekin jarraitu beharko duela 2016ko ekitalditik aurrera; hala ere, gaurko egunean ezin da era fidagarrian jo zein izan daitekeen sozietatearentzat kontzeptu horrengatik etorkizunean ondoriozta daitekeen pasiboa, beraz, gastua sortu ahala gastu hori erregistratu egiten da, Azkoitiko Udalak emandako diru laguntza bidez finantzatzen delarik (ikus 12. oharra)

Adierazitakoan oinarrituta, 2015eko ekitaldian, horniduraren zenbatekoa handitu egin zen, betebeharrak kitatzeko beharrezkoak diren zenbatekoak ahalik eta hoberen zenbatestearen. Zehazki, gastu bezala erregistratu zen 545.071,67 €-ko kopurua, Hierros Eguino enpresari erreklamaturako zenbatekoa zegoikona, Eusko Jauriaritzak 2015eko abenduaren 31 arte 2014.12.31n horniduraren gehigarrien betearazte subsidiarioan egindako gastuen ondorioz, eta lehenengo instantzian sortutako kostuen ondorioz (25.000,00 €-tan zenbatetsita).

2016ko urriaren 5an, ordezkotako erantzukizun-deribazioari buruzko ebazpena jakinarazi zion Eusko Jauriaritzako Ogasun eta Finantza Sailak, AZKOITIA LANTZEN, S.A.ri, beraz, 1.754.726,01 €-ko kopuruaren ordainketa egitea erreklamatzeko zaio.

Azkoitia Lantzenek, ordaintzeko errekerimendu hori ikusita, Eusko Jauriaritzako Ogasun eta Finantza Sailari azaltzen dio eskudirutan eskatutako zenbatekoaren ordainketari aurre egiteko ezintasuna, bere jabetzeko lurzati bat emanez ordaintzeko aukera onartzeko eskaiuz (10.1 Txalonerreka eremuko Birpartzelazio Proiektuan mugatua dagoen 4 zenbakiko lurzatia, aipatutako lurzati horretan gehienez 75 babes ofizialeko etxebizitza ipini daitezke) azaldutako lurzatiaren balio globala 1.754.783,98 €-koa da guztira, erakunde horrek onartu egin du gauzatan ordaintzea, 2017ko azaroaren 3an eskritura publikoan gauzatu.



Beraz, 2016ko ekitaldian, 2015/12/31n egindako hornidurez gain, gastu bezala erregistratu zen 94.550,66 €, hau da, ordezeko exekuzioan eta ordezeko exekuzio hori bukatu arte, Eusko Jauriaritzak egindako gastuei dagokien zenbatekoa. Hornitutako kopurua pasibo zirkulatzailetik ordaindu beharreko hartzekodun komertzialak eta beste kontu batzuk epigrafera intsuldatu zen. 2017ko ekitaldian likidatuta geratu da zenbatekoari dagokionez, alde batetik Txalonerreka 10.1 4. Lurzatia 1.754.726,01 euroren truke entregatu da, eta bestetik, 176.905,63 € ordaindu dira. Eraitza gisa, 4.956,29 € euroko gehiegizko hornidura dago.

- Aholkulari letradunaren ordainsariak:

2013ko abenduaren 31n, Carlos Beraciertorekin, hau da, sozietatearen aurreko abokatuarekin, zorra bat kontabilitatean erregistratuta ageri zen 133.846,80 euro pasibo ez korrontean eta 38.220,38 € pasibo korrontean. Hala ere, 2013ko abenduaren 02an ospatutako Administrazio Kontseiluak hurrengo adostu zuen aipaturiko abokatuaren zerbitzu-sariei buruz:

LEHENIK.- 558/2010 (Donostiako Lehen Auzialdiko 7 zk.ko Epaitegia) eta 394/2010 (Donostiako Lehen Auzialdiko 4 zk.ko Epaitegia) prozedurak direla eta Beraciertore abokatuak bere garaian egindako "Ordainsarien Kalkulua" (*Cálculo de Honorarios*) eta proposatutako "Ordainsarien Akordioa" (*Acuerdo de Honorarios*) ez onartzea eta 2/2011 eta 1/2012 fakturak ez ordaintzea.

Aipatu prozeduren ordainsarien kalkulua abokatuak 2012ko martxoan proposatutako irizpide eta sektore publikoko kontratazio legediaren printzipioen baitan egitea, eta nomenbestez kopuru hauek ordaintzea:

- Donostiako Lehen Auzialdiko 7. Epaitegiaren 558/2010 prozedura arruntari dagokionez: kontutan hartuz abokatuak egindako kalkuluaren arabera 147.263 €etako eraitza ateratzen zitzaiola, berak geroztik proposatutako kriterioa kontutan hartuz (guztiaren % 15a) 22.089,45 €etako eraitza ematen duela, eta inolako kontraturik ez dagoenez, kontratu txikiaren muga errespetatu behar dela, proposatzen da 18.000 € gehi honi dagokion BEZa ordaintzea.
- Donostiako Lehen Instantzako 4. Epaitegiaren 394/2010 prozedura arruntari dagokionez: kontutan hartuz abokatuak egindako kalkuluaren arabera 75.815 €etako eraitza ateratzen zitzaiola, berak geroztik proposatutako kriterioa kontutan hartuz (guztiaren % 15a) 11.372,25 € - etako eraitza ematen duela, kopuru hori gehi dagokion BEZa ordaintzea proposatzen da.

BIGARRENIK.- Abokatuak berak aurkeztutako eta Kontseiluak onartutako "*Propuesta de Honorarios Profesionales*" irizpideen baitan, 2013ko Irailaren 16 arte egindako lanen likidazioa onartzea.

2/2012 fakturan agertzen diren kontzeptuengatik, behin betiko likidazioa egin ondoren, eta Carlos Beraciertore abokatuak aipatu faktura esandako terminoetan zuzendu eta igorri ondoren, ateratzen den bere aldeko 105,32 €etako eraitza ordaintzea. Kopuru guztiei dagokion BEZ gehitu behar zaio.

2014ko urtarrilaren 29an ospatutako Administrazio Kontseiluak aipaturiko akordioa berretsi zuen. Aipatutako akordioaren arabera abokatuarekin dagoen pasiboa 105,32 euro izango litzateke, hala ere beste alderdia ez onartutako akordioa izanez, zuhurtasunagatik aipaturiko pasiboak kontabilitatean isladatuta mantendu ziren, nahiz eta kitapena egiteko unea eta zenbatekoa noiz zehaztugabeak izan, aipatutako ekitaldian berriz ere sailkatu zen horniduren epigrafean.

Aipatutako abokatuak Azkoitia Lantzen, S.A.ri gaur arte erreklamazio formalik egin ez dionez, 2017ko ekitaldian 172.067,18 €-ko hornidura ezabatua izan da, erreklamazioak aurkezteko legezko preskripzio-epaia igaro delako.



14. OHARRA.- INFORMAZIO GEHIGARRIA

- Jarraian ikus daitezke sozietateko langileak sexuaren arabera banatuta, ekitaldi amaieran, kategoria eta mailatan banatuta:

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Teknikari eta langile zientzialariak eta intelektualak eta laguntzaileak	1	0	1
Langileak guztira, 2016ko ekitaldi amaieran	1	0	1
Teknikari eta langile zientzialariak eta intelektualak eta laguntzaileak	1	0	1
Langileak guztira, 2017ko ekitaldi amaieran	1	0	1

- 2017ko ekitaldian, ez da sortu Administrazio Kontseiluko kideekiko obligaziorik pentsioen eta bizitza-aseguruen alorrean, baina 1.525,59 euroko ordainketak sortu dira Administrazio Kontseiluko kideen dietak direla eta. 2016ko ekitaldian, 2.172,81 euro izan ziren.

Bestalde, ez zaie aurrerapenik egin, ez eta krediturik edo bestelako abantailarik eman sozietateko Administrazio Kontseiluko kideei.

2017ko ekitaldian zehar, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute eragiketarik egin sozietatearekin edo taldeko sozietateekin, ohiko salerosketetatik edo merkatuko baldintzetatik at.

Administratzaileek sozietateari jakinarazi diote ez daukatela partaidetzarik sozietatearen helburu sozialaren jardueramota bera, antzekoa edo osagarria duten sozietateetako kapitalean.

